

«Euskararen kontrakoek egina dute euskara suntsitzeko plangintza»

Izen ezaguna da Sagrario Aleman euskalgintzan. Nafarroan, berak duke aipurik onena. Esango genuke Sagrario baitan bete-betea gauzatu direla nafar euskaltzaleen bertuteak: gogoia, ekintza, konpromisoa. Lanean bakean ari zela, hara non jaso duen izendapen bat gure emakumea hedabideen parralera ekarri duena: euskaltzain oso. Inondik ere, Sagrariok urte askoan egin duen ibili irmoa goستن duena eta, aldi berean, helduen euskalduntze-alfabetatzeak hizkuntzaren normalizazioan duen egitekoa azpimarratzen diguna, zarata nagusi den erresuma eroan.

MIEL A. ELUSTONDO

Argazkiak: Dani Blanco

Euskaltzain oso izendatu zaituzte eta hedabide guztietara heldu da zure izena. Aldiz, bizi guztia alfabetatze-euskalduntzean, erreferente Iruñean, euskalgintzan ezaguna... eta nekez ageri izan zara medioetan.

Aldaketak dira berri. Lanean ari zarela, horretan ari zara, oihartzunik gabe. Euskaltzaindiaren lana inportantea da, helduen euskalduntzea ere inportantea, biak, baina jendearen begietara Euskaltzaindiak duen prestigiorik ez du helduen euskalduntzeak; nire ustez ez zaio beharko lukeen inportantzia ematen gizartean, oro har. Ez dut esan nahi hedabideetan azaldu beharko genukeenik; alderantziz, gizartea gehiago hurbildu beharko litzatekeela alfabetatze-euskalduntzeetara.

“Gehiago”.

Bai, laguntza gutxi dugu. Gizarteak ere ez dio ematen behar duen garrantzia. Uste izan da hurrei euskaraz irakatsita etorkizuna ziurtatua genuela eta hori ez da inola ere horrela. Hurrek euskaraz ikastea oso inportantea da, baina horrekin batera beste zenbait mugimendu ere beharrezkoak dira. Helduen euskalduntzea gabe, adibidez, haurrak, lehentxeago edo geroxeago, erdaraz hitz egiten hasiko dira euskara nagusi ez den herrietan. Gaur egunean ikusten duguna, alegia.

Bai. Herri txiki euskaldunetan ere haurrak franko aritzen dira erdaraz. Kezkagarria da, baina normala ere bada haurrak, eta gazteak, erdaraz aritzea, helduok ez badiogu inportantziarik ematen, ez badugu ikasten, ez bagara aritzen. Helduek umeekin beste inorekin euskaraz hitz egiten ez badute, hortik ez dator gauza onik.

Zertan da egoera zure herrian, Etxalekun?

Orain dela hogeit bat urte arte, Nafarroako herri txiki euskaldunetan euskaraz hitz egin izan da.

Nortasun agiria

Euskaltzain izendatu zutenez gero aski da Internet bilatzailean Sagrario Alemanen izena idaztea haren curriculum osoaz hutsik egin gabe jabetzeko. “Sagrario Aleman Astiz, Etxalekun (Nafarroa) jaio zen, 1952ko martxoaren 5ean. Farmazian lizentziatua da Madrilgo Unibertsitate Konplutensean. Nafarroako alfabetatze eta euskalduntze mugimenduan ezinbesteko erreferentzia da...” eta entziklopediari dagokion erretolika beti hotza. Jakintza entziklopedikoak Arturo Campion euskaltegian izan zuen partehartzea eta euskararen didaktika arloan egindako lana aipatuko ditu. Baita zein eta zein euskara talde, elkarte, batzorde eta bestelakotan hartu duen parte. Zein eta zein irrati eta aldizkaritan kolaboratu duen. Zein eta zein sari jaso dituen... Munduan diren entziklopedia guztietan batek ere ez du aipatzen ezpata batek zulatzen duela gure señoaren bihotza.

• PERTSONAIA •

Sagrario Aleman





Baina hain txiki dira herri horiek, bizia ere gutxi dago. Jendea ez da herrian gelditzen lanean. Haurrak ere herritik kanpo eskolatzen dira, nahiz eta euskaraz eskolatu. Beraz, haur gutxi, eta herritik kanpo. Bestalde, adineko jendea bizi da herrian, baina etxean. Bizirik ez dago herrietan. Umeak, euskaraz jakin arren, eta gehienek badakite, ez dira aritzen, edo ez dute norekin ari.

Uste nuen erabat euskalduna zirela Etxaleku eta inguruko herriak.

Hizkuntzari dagokionez, Etxaleku mugako herria izan da. Gaur egun zailago da mugaz hitz egitea, euskaldunak leku guztietan gaude-lako, nahiz eta presentzia txikia izan. Esan nahi dut oraingo mugak ez direla hain garbiak, baina garai batean ez zegoen horrelako dudarik. Halako herritan euskaraz egiten zen, hala-kotan erdaraz. Etxalekun euskaraz hitz egiten zen. Bidez auzo genituen Ihabenen, Erason eta Oskotzen, erdaraz aritzen ziren, askok euskaraz jakin arren. Imotzen, berriz, Goldaratz, Muskiz, Etxaleku eta Zarrantz ziren herri euskaldunak. Basaburuan ere antzera, zenbaitetan euskaraz aritzen ziren eta bestetan ez.

Zorionekoa zu: euskaraz hazi zinen.

Zori hori izan nuen. Etxaleku euskalduna zen, jendea euskaraz aritzen zen, kontzientzia gabe, normal, beharko lukeen bezala. Hau zela eta hura zela, garai batean, gu txikiak ginenean, haurrak erdaraz hasteko kinkan egon ginen. Gure aita euskalduna ez ezik, oso euskaltzalea zen, eta neurri batean berari esker, familiari esker eutsi geniola Etxalekun euskarari uste dut.

Krisia ez

“Hainbeste erdaldun izanda, eta euskaltegietan dagoen ikasle kopurua kontuan hartuta –AEKn, IKAn, gobernuarenetan–, lau mila lagun inguru ari da euskaraz ikasten. Askok ala gutxi da hori? Begiratu, adibidez, zenbat jende ari den bestelako egitekotan... Ba ote da adin honetako hainbeste jende beste inon? Eta, jendeak egiten dituen era askotako ekintzak kontuan hartuta ere, seguru ez dagoela horietako ekintza batean ere asteen zortzi ordu ematen dituenik. Aldiz, euskara ikasten bai, ematen ditu. Lau mila lagun, asteen zortzi ordu! Jende asko”.

Eta Iruñean ikasten ari nintzela hasi nintzen euskarazko eskolak ematen. Anaia ere horretan hasia zen. Ahizpa bat horretan aritua zen. Familiakoak ari ziren. Beste ezagun batzuk ere bai, eta esan zidaten: “Jende gehiago behar dugu. Sartuko zara?”. Euskalduntze mugimendua abiatua zen, eta ni ere hasi nintzen erakusten.

Esan duzunez, “etorri, irakasleak behar ditugu” zen orduko oihu ozena. Zertan da hori gaur egun? Euskara irakasle premiarik ba al da?

Gaur egun helduen euskalduntze-alfabetatzea besterik da. Garai hartan borondatezkoak ginen, beste lanbide batean ari ginen eta, pasadizoan, euskarazko eskolak ematen genituen. Poliki-poliki hori aldatu egin zen, jakina. Ikasle kopurua emendatu ahala beste lan batzuk ere egin behar izan dira. Gehiago aritzen gara metodologiaz, beste eginkizun batzuk ere geureganatu ditugu –ez da eskola ematea bakarrik–, burokrazia ere gero eta gehiago da... Euskalgintzako beste ekimenekin ere harremanetan behar dugu, bestelako proiektuak sortzen dira... Irakaskuntza bera ere aldatzen ari da... Jendea behar da.

Gabezia horiek asetzeko sortu al zen euskaltegia?

Arturo Campioni dagokionez, berau izan zen Euskal Herrian, legezko egoera izan zuen lehenengo euskaltegia, estatutu eta guzti. 72an abiatu genuen euskaltegia eta handik bizpahiru urtera estatutuak onartuak genituen. Nik esango nuke Ilazki euskaltegia ere bateratsu ibili zela... Geroztik asko aldatu dira gauzak. Lokalak alokairuan hartu ziren, gero erosi... Helduen euskalduntze-alfabetatzea bide horretan sartu zen, eta horretan dago, nahiz eta zenbaitetan gaueskola moduan lan egin, eskolak han eta hemen emanez, esan nahi dut, baina, hala ere, beti badakigu



garai hartan ez bezala, hor dagoela euskaltegia, atzean, proiektuari eusteko.

Zer esan nahi duzu? Euskaltegia euskara eskolak ematea baino gehiago dela? Hortik etorri ote zen Zaldiko Maldiko elkarteak?

Bide beretik etorri zen. Zaldiko Maldiko ez da euskaltegia, ez dago haren menpe, baina helduen euskalduntze-alfabetatzean ari zen jendea ohartu zen: "Eskolak bakarrik ez dira aski, jendeak besterik behar du", eta garai hartan oso aukera gutxi zegoen euskaltegi eta ikastolez landa, euskaraz bizitzen laguntzeko. Txoko bat behar genuen, biltzeko, ekitaldiak egiteko, ostatu bat izateko, euskaldunen gune bat... Ez zen, beraz, ikasi nahi dutenen gunea, baizik eta aritzen direnena.

Euskal Herrian Euskaraz. Hor ere ari izan zinen. EHE lekutan dago.

79koa da, oker ez banago.

Haren beharrik bada gaur egun?

Nik uste baietz. EHE asko aldatu da: jendea, giroa, beharrak... Bazkide naiz baina ez dut haren lanetan parte hartzen. Garai batean ez nintzen oso konforme egin zuen aldaketarekin, baina EHE behar da, talde bat aldarrikapenak eginen dituen, euskararen kontrako eraso eta abarrak salatuko dituen. Ez dakit funtzio hori betetzen duen, baina segur naiz bertan ari direnek eginak izango dituztela beren azterketak. Bai, behar da EHE.

Nafarroan aspaldi erantzi zuen mozorroa jendeak...

Garai batean kontrako jarrera handi xamarra zegoen hemen, baina ez zeuden agerian. Euskararen aldeko jarrera handitu zen gero.

Ondoren, atzerako buelta etorri da, eta kontrako jarrera hori oso harro agertu da.

Goio Monrealek esan zigun beldurgarria zela UPNren gobernuaren hizkuntz politika. Iruñetik Lizarrarainoko errepidea egin zutenean, adibidez, euskara desagerrarazten saiatu zirela.

Euskararen plangintza, hizkuntza politika ego-kia... Askotan hitz egiten dugu horretaz. Bada, nik uste dut, benetan, euskararen kontrakoek baietz, egin dutela euskara suntsitzeko plangintza. Oso ongi pentsatu eta diseinatuak plangintza dutela esanen nuke.

Zeinek egin?

Ez dakit ideologoak deitu edo zein hitz erabili. Ez dakit ideologo izena ematen ahal zaien bertako hizkuntza suntsitzea helburua dutenei. Oso argi dituzte gauzak, badakite nondik eta nora jo, eta beren asmoak betetzeko ahalmena dute, baita legeak ere. Lotsagabe aritu dira, oso, eta berdina zaie nola agertu eta nola adierazi beren asmoak.



Nola egin aurre?

Nik uste, aprobetxatzen ahal duguna aprobetxatu beharra dagoela. Ezin daiteke esan: “Horrelako politika egiten dute eta guk ez dugu deus eginen”. Ez. Uste dut, hala ere, behar dela administrazioarekin elkarriketatu, administrazioa beharrezkoa delako, eta saiatu behar da beste iritzi bat ematen.

Horregatik zara Aralarren.

Ez dakit, bada, horregatik nagoen Aralarren.

Borroka zuzena ez baina bestelako bideak hobetsi dituzulako, behar bada?

Uste dut bide guziak behar direla.

Uste dut zirrikitu guztiak aprobetxatu behar ditugula, ez gaudela deus eskapatzen uzteko egoeran. Beste arlo batzuetan ez dakit, baina euskarari dagokionean “ehun urte barru erdie-tsiko dugu” esateak ez du balio. Ez. Euskara bizi ala hil, oraintxe ari gara jokatzeko Nafarroan eta Euskal Herri osoan ere bai. Orain egin behar ditugu egitekoak, “gero eginen ditugu” errateak ez du balio, “lehen egin genituenak” ere ez dira aski. Orain eta hemen egin behar dugu, bide guziak eta zirrikitu guziak aprobetxatu behar ditugu.

Zirrikitu guztiak baliatu behar direla, hori ikasi al zenuen politikan egin zenituen urteetan?

Ez, lehenagotik ere ikasia nuen hori. Gure aitek beti esaten zuena: “Ahal baduzu etsairik ez egin eta, ahal baduzu, adiskideak egin etsaien artean ere”.

Zein adiskide egin zenituen zuk etsai artean?

Elkarrekin bizi behar dugu eta guztiekin izan behar ditugu harremanak. Alderdi guztietako jendearekin izan nituen harremanak. Eztabaida zenean, berriz, nork bere iritziak defendatzen zituen, eta nik neureak. Eztabaidak ez du esan nahi batak bestea joka ibili behar dugunik. Batzuetan egoera gogorak gertatzen dira, eta gertatu ziren, baina zer egingo diogu, bada, horrelakoak gara!

Oinezkoak ez du ulertzen politikariak batean elkarri asto beltzarenak eta bi esaten ibiltzea eta hurrengoan, aldiz, bata bestearen eskutik helduta.

Gogoratzen naiz behin, Iruñean, lagun batek galdera hori egin zidala: “Eta, moldatzen zara halakorekin udalean?”. Badut lagun bat esaten duena bere lagun taldean alderdi politiko guztietako jendea dagoela eta elkarrekin dira Sanferminetan, aste egunetan eta asteburuetan. Elkarrekin beti, baina joera politiko oso diferenteak dituzte. Hala ere, lehen gehiago gerta-

AZKEN HITZA

Jaun serioak euskaltzain

“Lehengoan jakin nuen batek txikitatik esaten omen zuen euskaltzain izan nahi zuela. Eta lortu zuen. Baina nik ez, behin ere ez dut hori izan buruan. Campion eta gisa horretako jaun serioak izan ditugu gogoan euskaltzain izateko, oso jantziak, kultura handikoak... Nik beste maila batean ikusten dut neronen burua. Pentsatu ere ez euskaltzain izan behar nuela! Ezagutzen ditudan euskaltzainak, kultura handikoak, asko idatziak... Ni, berriz... Dena ez daiteke izan, ezta?”

Krisia bai

“Nik esanen nuke helduen euskalduntze-alfabetatzea euskalgintzak duen bigarren zutaberi nagusia izanda, ez duela, inondik inora, behar duen laguntzarik, ez jendearen aldetik, oro har, ez baitago helduen euskalduntzeari buruzko kontzientziarik, eta ezta administrazioetik ere. Nafarroaz ari naiz orain, EAEn bai baitago euskaltegien arteko batasun moduko bat, gobernuarekiko kolaborazio eta plangintza antolatu nahi bat. Han, nolabait, elkarrekin ari dira lanean. Hemen horrelakorik ez da. Hauteskundeak igaro berri dira eta ikusi egin behar nola osatzen den gobernu, eta elkarlanerako zein borondate dakarren”.

tzen zen hori, orain baino. Elkarrekin bizi behar dugu, eta horretan ikasi behar dugu.

Lagunartean joera politiko guztietako jendea duenaren kasua aipatu duzu. Horra nire galdera: zuk baduzu adiskiderik Batasunako kideen artean?

Lehen lagun nituenak lagun izaten segitzen dute, ustez behintzat. Etxalekuko betiko lagunak lagun ditut, eta han badira denetatik; Batasunakoak ere bai. Iruñean ere gauza bera. Batasunako mahai nazionalako zenbait kide ere aspaldi ezagutzen ditut, eta ezagunak ez ezik adiskide ere badut baten bat. Ez dut uste alderdikide guziak lagunak izaten direnik, eta ezta ere lagun guziak alderdikideak.

Hortik datozke Aralarren kontrako erasoak, hemendik bertara Altsasun eta.

Horrelakoak ez zaizkit batere gustatzen. Maila pertsonaleko erasoak eta. Garai batean ere, UPNkoen aurrean edo pankarta baten atzean jarri behar eta beti esan izan dut hura oso gogorra zela. Partikular baten aurrean jartzea, alegia. Besterik da alderdi politikoen arteko kritika politikoa edo borroka. Baina maila pertsonalean jardutea ez zait bidezkoa iruditzen.

Zer izan duzu mingarriago, ezker abertzalearen banaketa, ala AEKrena, IKA sortu zenutenean?

Zalantzarik gabe, helduen euskalduntzearen banaketa.

Dramatikoa izan zenuen?

Nik hala bizi izan dut.

Oraindik ere hala bizi duzu?

Bai. Orain ere horixe sentitzen dut. Batzuetan pentsatzen dut iragana dela, gauden bezala ongi gaudela. Guk elkarrekin segitzeko ahalegin guztiak egin genituela uste dut; azkenean ez zen posible izan, atzerako biderik ez zen puntura heldu ginen eta nik momentu hura oso gaizki pasatu nuen, eta aurreko hilabeteak ere bai. Baina egoera hartara iritsita, besterik gertatzea ezinezkoa zen. Bakoitza bere bidean ari da, baina bai AEKn eta bai IKAn aurrera egiten saiatzen gara, zenbait lan elkarrekin egiten, nork bere ideia eta ikuspegiarekin.

Hizketan hasi garenetik, oraintxe baino ez zaitu heldu dardarak. Malkoa ez duzu aparte izan.

[Siltasuna eta barne zimikoa] Esaten dut, oso gogorra izan zen niretzat une hura.

Zure barnean da mina, oraindik! Sufriarazi egiten dizu.

...

Honi dagokionez, beste galdera bat eta bazter utziko dut gaia. Trauma ideologiko-politiko ez ezik, trauma pertsonal izatera iritsi zen auzi hura?

Bai...

Ba ote da liskar hau zu bezain hurretik bizi izan duenik?

Bai, uste dut baietz. Garai hartan helduen euskalduntze-alfabetatzean ari zirenak eta gaur egun bertan segitzen dutenak ez asko. Momentu hura bizitu zuen jende asko ez dago hemen, beste nonbait baizik. Askok ere ez gara segitzen dugunok, baina bagara oraindik...

Zenbait paper eta berriemaile bat erabili ditut zuregana etorri baino lehen. Berriemaile haren arabera, AEK barruan gertatu zen borroka hura euskal kulturaren historian oraindik ere idatzi gabe dagoen atala da. Berriemaile hori, noski, zure egia kontatu dezazun eskatzen ari da.

Kontatu beharko da, baina IKA sortu genuen artean egoera gehiago ez kakazten saiatu gara aspaldi. "Batzuk alde batean geunden, besteak beste batean. Egin dezagun lan, nork bere tokitik, ahal dugun guztia". Guk hori esan genion geure buruari. Euskararen onura nahi genuen, ez besterik, eta ematen du liskar hartaz hitz egiten hasteak berriro dakarrela haserre, eta guk ez dugu asmorik. AEK-k

Ingeles Navarrorum

"Euskara maldan behera doa' esanez, lasaitu ziren euskararen kontra daudenak. Lanean ari ginela ikustean, berriz, gobernuak bestelako aldarrikapena egin du, eta kontrako giroa indartu. Ingelesak gehiago balio du Lingua Navarrorum-ek baino. 86ko legea larria izan zen. Batzuek bazuten esperantza, legea baliatuz aurrera egingo genuela. Baina legea egin zutenek ez zuten borondaterik, edo borondate eskasa... Azken zortzi urtean egoera ikaragarri okertu da".

ikaragarritzko lana egin zuen hura gertatu aurretik, bai eta gero ere, eta guk ere bai, AEKn eta IKAn. Beharbada zenbait gauza kontatu egin beharko dira, noizbait, baina, benetan, ez dut uste tiki-miki horietan aritzeko gaudenik Euskal Herrian, eta are gutxiago euskararen inguruan.

Amaiera dugu, Sagrario. Zein esanahi dute jaso dituzun sariak: Zaldiko Maldiko elkartearen Lamien Urrezko Orrazia eta Euskalerrria Irratiaren Larreko saria...

Politak izan ziren. Adiskideek eman zizkidatzen. Iruñeko Udalean osoko bilkura guztietan euskara hutsean aritu nintzen beti. Ez zegoen euskaraz zekien besterik. Neure taldean, HBn, zer edo zer ulertzen zuten eta azken urteetan beste euskaldun bat sartu zen. Hara, paretarekin aritzea oso gogorra izaten da. Lamien Urrezko Orrazia, berriz, zera izan zen, "paretarekin aritu naiz, baina kanpoan diren batzuek entzun dute eta baloratu dute". Horregatik jaso nuen saria, Iruñean euskararen munduan lanean ari direnek emana. Larreko saria ere gauza bera, ezusteko ederra.

Euskaltzain oso izendapena ere bada sari.

Handia! Niretzat errekonozimendu hori ikaragarria izan da, eta hunkigarria. ■

Jaso astero **ARGIA** etxean



Abantaila ugari izateaz gain, Harpidedunen Guneko kide ere izango zara

Izen deiturak:
 Helbidea: Posta kodea: Herria:
 Herrialdea: Jaioteguna:
 N.A./I.F.K.: Tel./Faxa: e-posta:
 Ordainketa mota: ☐ Bankuz
☐ Taloiez
☐ Transferentziaz KOMUNIKAZIO BIZIAGOA S.A.L-ren kontura (ARGIA): 3035 0036 14 0360048647
 Bankuz ordaintzekoek betetzeko soilik
 Banku edo aurrezki kutxa:
 Titularra: N.A./I.F.K.:
 Titularraren helbidea: Titularraren telefonoa:
 Entitatea: Sukurtsala: K.D.: Kontu zenbakia:
 Data: Sinadura:

Harpidetza-orri hau zure datuekin bete eta helbide honetara bidali: 142 P.K. / 20160 Lasarte-Oria -Gipuzkoa-

Aukeratu ongi etorri oparia

"Ardibidez" mahai-jolasa

"888 txiste" liburua

"Mokogorri" puzzleak

%25eko beherapena ikasle bazara

Urtebeteko harpidetza:
2007ko prezioak

130 € Hego Euskal Herrian
160 € Ipar Euskal Herrian



ARGIA

17